

**KONTSULTA PUBLIKOA, ESKOLA-JANTOKIKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN AGINDUAREN ALDAKETA EGIN AURREKOA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurreikusita dauka Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 9ko Agindua aldatzeko prozedura hastea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan derrigorrezko hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako mailetan (lehen zikloko hirugarren maila eta bigarren zikloa) eskola-jantokiko zerbitzuaren prezio publikoak finkatzen dira, eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak zehazten dira.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zentroak kontsulta publikoan bilduko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, gizartearen iritzia.

Aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea betetzeko, iragarkia jartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta herritarrei gonbita egiten zaie argitaratzen den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Vitoria-Gasteiz,

Ane Urkiola Alustiza

Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaria

Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7A72-8NSK

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: ANE URKIOLA ALUSTIZA | 2025/09/22 15:11:16



KONTSULTA PUBLIKOA, ESKOLA-JANTOKIKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AGINDUA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURREKOA

1.- Arau-ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak

Azken hilabeteetan, zenbait arau-erreforma egin dira, eta, horien ondorioz, eskola-garraioa eta -jantokiko zerbitzuak eguneratu dira. Izan ere, Eskola Garraioari buruzko urriaren 31ko 164/2023 Dekretu berria onartzearen ondorioz, eta Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 9ko Aginduak indarrean sartzearen ondorioz (agindu horien bidez, batetik, eskola-jantokiko zerbitzua arautzen da, eta, bestetik, zerbitzu horren prezio publikoak ezartzen dira), eskola-garraiorako eskubidea bereizi egin zen jantokiaren prezio publikoaren hobaritik.

Izan ere, arau horiek indarrean sartu arte, eskola-garraiorako eskubidea aitortzeak jantoki-zerbitzuaren prezio publikoaren hobaria automatikoki aplikatzea zekarren. Hala ere, 2024-2025 ikasturtean bi prestazioak bereizi ondoren, interesdunek bi eskaera egin behar dituzte, eta modu independentean izapidetuko dira. Hau da, eskola-garraiorako eskubidea aitortzeak ez dakar berekin prezio publikoaren hobaria automatikoki aplikatzea, eta alderantziz. Egia da aipatutako erreformek araudia eguneratzea ekarri dutela, baina arauaren aplikazio praktikoa agerian utzi du egungo egoerara egokitu behar dela.

Prezio publikoaren hobaria eskola-jantokiko zerbitzua indartzeko eta sustatzeko sortu zen, jantokiaren erabilera guztiz ezohikoa zen une batean. Gainera, bazkaltzeko ordutarte egungoa baino txikiagoa zen, eta, beraz, ikastetxetik urrunago bizi ziren ikasleek (eta, beraz, eskola-garraiorako eskubidea zutenek) jantokian geratu behar izaten zuten. Ondorioz, prezio publikoaren hobariarekin bi helburu lortu nahi ziren: batetik, jantokiaren erabilera sustatzea, eguerdian beharrezkoak ez diren joan-etorriak eta horien ondoriozko arriskuak saihesteko, eta, bestetik, beren etxera joateko denbora nahikoa ez izateagatik eguerdian eskola-jantokia erabiltzera behartuta zeuden ikasleen ondorioak arintzea edo minimizatzea.

Hala ere, azken urteotan egoera hori nabarmen aldatu da. Eskola-jantokiko zerbitzuaren erabilera zabaldu eta orokortu egin da, eta, beraz, 88.000 ikasle baino gehiagok erabiltzen dute egunero. Izan ere, ohitura soziokultural berrien bilakaerak, egungo familia-egiturekin eta lana eta familia bateragarri egiteko premiekin batera, eskola-jantokiko zerbitzua funtsezko zerbitzu bihurtu du, osagarria izan arren.

Illo horretan, komeni da azpimarratzea Hezkuntza Sailak urtero argitaratzen duela unibertsitateaz kanpoko beken deialdi bat, besteak beste, eskola-jantokirako osagai bat jasotzen duena. Horrela, egoera ekonomiko ahulagoa duten familiei zerbitzua bermatzen zaie.

Azaldutako guztiagatik, proiektatutako erreforma honen bidez, Hezkuntza Sailak araudia egungo hezkuntza-sistemaren egoerara eta funtzionamendura egokitu nahi du, ohiko jankidearen prezio publikoa bateratzeko, familien premiak aurreko paragrafoetan aipatutako beken deialdiaren bidez ordain daitezzen.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Duela gutxi onartu dira bai Eskola Garraioari buruzko urriaren 31ko 164/2023 Dekretua, bai Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 9ko Aginduak, batetik, eskola-jantokiko zerbitzua eta, bestetik, zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituztenak. Beraz, behar diren arau-egokitzapenak egin behar dira erregulazioa egungo egoerara egokitzeko, eta, ondorioz, xedapen zaharkituak ezabatzeko.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Prezio publikoak finkatzen dituen Agindua aldatzeko proiektu honen helburua da araua lehenengo atalean deskribatutako egoerara egokitzea.

4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Erregelamendu-prozedura hori guztiz beharrezkoa da prezio publikoen aginduaren aldaketa izapidetzen jarraitu ahal izateko. Aipatutako agindua onartu ondoren, egin nahi den erreforma Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako izapideen bidez baino ezin da egin. Beraz, Agindua aldatzeko proiektu berri bat izapidetzen hasia erabaki da.